

ERAKUSKETA

BASOA NIRE BAITAN - EL BOSQUE QUE ME HABITA

Esther Otxoa

www.estherotxoafoto.com

eotxo@hotmail.com

Telf. 627741763

"El bosque que me habita" - Basoa nire baitan , bularreko minbiziaren diagnostikoaren ondoren sortutako argazki-proiektua da, 2018ko abuztuan hain zuzen ere.

Argazkigintza terapia gisa erabiliz, irudiak erregistratzen ditut mediku-kontsultetan, lehenik dokumentu bisual gisa,aldi berean tratamenduan igarotako urte eta erdian zehar argazkiak egin dizkiot bizitako basoari; bai eta nire emozioek jasotzen dituzten autoerretratuei ere.

Emaitza, Lucia Morate komisarioaren lanaren ondoren, barne bidaia, naturarekiko lotura eta bizi izandako emozioak erakusten dizkiguten 19 irudiz osatutako erakusketa da. Jorge Fernández Bazaga argazkilari, psikoterapeuta eta editorearen testuarekin.

Erakusketa Errenteriako Xenpelar etxean erakutsi zen 2020ko ekainean, jende asko bertaratu eta asko bildu zelarik.

Gipuzkoako Minbiziaren Elkartean ere egon da ikusgai, Donostiako egoitzan.

Gipuzkoako Aldundiak diruz lagundu du proiektu hau,“ Olatuak”- en bidez.

Helburua minbiziaren errealitatea modu artistiko batean erakustea, honen ezagutza jendartean zabaltzea eta gaixotasuna ikustaraztea da, jende askok pairatzen duen gaixotasuna baita.

Era berean, argazkigintza terapeutikoa jendearengana tresna gisa hurbiltzea ere interesgarritzat jo dut. Horretarako, erakusketarekin batera ordu eta erdiko iraupena duen hitzaldia izaten da eta bertan sormen-prozesua eta minbiziaren bilakaera nolakoak izan diren azaltzen dira.

Fitxa teknikoa:

Erakusketa: 19 irudi. Horietatik 9 , 40x60 cm-koak, eta gainontzekoak 50x75 cm-koak, Azken hauek hain zuzen ere, Enhanced mate 190 paperean inprimaturikoak eta horrezgain pigmentaturiko tinte kontserbatzaileez osaturik.

10 mm duten Cpa eta aluminiozko antrazita markoa.



70x100 cm-ko luma kartoizko bi panel digitalki inprimatuak.

Euskarazko zein gaztelaniazko testuak.

Hitzaldia: Ordu eta erdiko iraupena, irudi proiektatuekin.

Beharrezkoa: Proiektoredun gela.


Aurrekontua: 200 euro.

















Duela milaka urte, zerura begiratu eta astroak ikusitakoan harrিতuta geratuko zen emakumea bailitzan, Esther Otxoaren begiradak argazkien bidez irudikatzen du munduak eta bizitzak eragiten dioten harridura.

Bere irudietan barrena, ibilbide intimo eta aldi berean unibertsala egingo dugu elkarrekin. Elementu primarioek, isiltasunean eta hutsean aurre egiten duten landareek, koloreak eta formak edo desfokuratzearen leuntasunak barrurako bidaia irmoa irudikatzen dute, bere gorputza duela protagonista. Gaixotasuna pasatzeak ez dio eragozten argazkilariari bere sentsibilitate, beldur eta zalantzak azaltzea, eta aldi berean ausardia ere sentitzen da errelatoa sortzeko moduan, bizitzeko eta partekatzeke borondatean, eta absentziaren eta presentziaren konbinazio magikoan.

Amaieran, bere begirada iristen zaigu, bitartekaririk gabe, zintzoa eta zuzena, bihozberatasun eske, egunerokotasunaren arrastoaren eta existentziaren hauskortasunaren artean azaleratzeko borrokan.

Jorge Fernández Bazaga

ESTHER OTXOA SUSPERREGUI

1966.urtean jaio nintzen Erreterian. Baloreen Filosofia eta Kultura lizentziatu ondoren, hamasei urte egin nituen Bartzelonan.

Nire barruaren bilaketak, Ekialdeko Filosofia eta Psikologia Humanistara hurbildu ninduen, Taichiaren eta Meditazio Vipassanaren bidez.

Gestalt Terapia eta S.A.T. Prozesuaren formazioaz gain, P.N.L.-rena ere burutu nuen. Haren formazioa burutzen nuen aldi berean, kongresu antolatzaile lanetan ere aritu nintzen farmazeutiko multinazional batean.

2008.urtean Erreterira itzuli eta argazkilaritza hautatu nuen , adierazpen artistiko bezala.

Argazkilaritza ikastaroak, “Xenpelar” Arte Tailerrean, Arteztun eta Artefoten burutu nituen.

2013 eta 2016. urteen artean, jakin-minak bultz eta , argazkilaritzaren teknikatik haratago jakin nahi izateak, argazkilaritza terapeutikoan murgiltzea ekarri zidan, Jorge F. Bazaga eta Carlos Canalek , “Historias de Luz y Energía”, emandako ikastaroetan parte hartu nuelarik.

Argazkilaritza ikuspegi berri batetik ikusteak, hau da, argazkilaritza osasuna eta bizi prozesuaren elementu bezala ikusteak, argazkilaritza eredu honetan arakatzea eta honengan nire ikuspuntua azaltzen ekarri zuen:

2020	Asoc. Cáncer Guipuzkoa- Donostia	“Basoa nire baitan”
2020	Xenpelar Etxea - Errenteria	“Basoa nire baitan”
2016	La Rue des Arts (Tulle-Frantzia)	“Les fils de la vie”
2015	KmO - Donostia	“Entre Flores”
2015	Sala Collage - Madril	“Mugimenduan”
2015	Juan Raro - Madril	“Mugimenduan”
2015	Festival Atlantikaldia - Errenteria	“Ibai Dizdirak”
2015	Xera Gastroteka- Errenteria	“Wu Wei”
2014	Galería Ina Creativa- Bartzelona	“Wu Wei”

2016.urtean Madrileran joan nintzen Blank Paper eskolan “Proyecto Fotográfico Personal” ikastaroa egitera eta Hepahisto eskolan, Arteterapia ikastaro bat ere egin nuen.

2017an Malagara bizitzera joan eta bertan, U.M.A.-n hain zuzen ere, “IV Curso de extensión universitaria en fotografía como terapia. Más allá de la Imagen Estética” ikastaroa egin nuen.

Gaur egun, osasun arazoak medio, berriz ere Errenterian nago, nire osasun eta argazkilaritza egitasmok lehenetsiz.